

Gorpurik gabeko heriotzek sorturiko terrorea oraindik beldur-garriagoa da. Bilduma honetan ere genero fantastikoaren bidez kontatzen du desagertuen gertara historikoa, esate baterako *Los himnos de las hienas* ipuinean. Oso molde antzekoan gauzatu zuen Julio Cortazarrek *Apocalipsis de Solentiname* ipuina (*Alguien que anda por ahí*, 1977), terrore politikoa fantastikoaren bitartez kontatuz. Enriquezek ere hori findu eta gainditu du, eta azpigeneroen nahiz erritmo narratiboaren hariak maisuki harrikatzen ditu.

Literatura fantastikoaren gainean ere idatzi ditu hainbat ipuin azken liburuan. Esate baterako, Kafkaren *Metamorfosis* ipuinaren izenburu bera duen kontakizunean eraldaketa kafarra ez da zomororen bat bilakatzea, pertsonaren gorputzaren eraldaketa erradikala baizik. Pertsonaiaren hautuz norbanakoaren gorputza bestea bilakatzen denean, metamorfosi garaikidea dugu esku artean. Egungo *body art* edota gorputz artea muturrera daralma Enriquezek. Zahartzaroak zeharkatzen du metamorfosi hori. Zahartzarolari beldurra eta zaharren gorputzei buruzko tabua giltzarri dira Enriquezen bilduma berrian.

### Mamuzko musika

Amaieran, Enriquezek ipuin liburuari soinu banda bat ere gehitzen dio. Musikari buruz idatzi duen kazetaria izanik, musikazale amorratua da. Zerrendan dago Nick Cave musikariaren *Ghosteen* diskoa, oso aproposa mamuen bidelagun izateko. Aurrenengoa zerrendan Sinead O'Connorren *Troy* kanta da, eta badu Enriquezen ipuingintzaren eraikuntza materialen nolokotasuna: lehenengo pertsonatik idatzia, aipu bat du abiapuntu —Yeatsen «Ez da beste Troiarik izango»—, eta ahots narratiboak minetik eta minaz kantatzen du. Ipuinetan bezala, zalantzaren lurraldetik entzuten da aurrenengo pertsona; ez dakigu nor den kontalaria eta, hitzak ehunduz, ahotsaren identitateak ematen digu istorioaren giltza, zalantza erabat ezabatu gabe. Hala dago *Troy* kanta eraikia, eta hala daude bilduma honetako ipuinak eraikiak. Are gehiago, Sinead O'Connor musikari gazte arrakastatsu izatetik gorputz eri zahar baztertua bihurtu zen. Hil ondorengo musika industriaren zurikeria gertatu arte, O'Connor mamu bat besterik ez zen. Gorputzak eta beldurrak topo egiten duten lurralde nekez horretatik ari da idazten Mariana Enriquez. ●


### KRIKA

## Etxe bat datorrenari

Irati Majuelo

**E**txe bat norberarena, etxe bat amesteko, ezinegonentzako, sosegurako, etxe bat etorkizuna bizitzeko. Halaxe irudikatu du Yolanda Arrietak argitaratu berri duen saiakera laburrean: poesiaz, gogoetaz eta kontakizunez betetako espazio bat norberaren dimensio orok lur har dezan.

Saiakera arina da, jostaria, molde itxietatik ihes egiten duena. Txatal laburrez osatua, esaten denak bezainbeste pisu hartzen du esan gabekoak, eta, beraz, irakurlearen esku geratzen da puzzlea nahierara eratzea, iradoki den horretatik nork bere hausnarketarako bidea egitea. Alde horretatik, lan honek oihartzun egiten du Arrietak berak 2009an idatzitako *On-off* liburuare-



### 'ETXE BAT NORBERARENA'

**Idazlea:** Yolanda Arrieta.

**Argitaletxea:** Alberdania.

kin, bai etxea (orduko hartan eraikin osoa) idazketarako aitzakiazat hartzeagatik, bai testu laburrak tartekatzeo egindako hautuagatik. Hala ere, honako honetan zahartzaroak hartzen du idazketaren erdigunea, eta emakume eta sortzaile gisa bizi-etapa horrek sortzen dizkion zalantzak eta desirak azaltzen dira. Ildo horretan, interesgarria da Mari Luz Estebanen

*Andrezaharraren manifestua*-rekin eta Arantxa Urretabizkaiaren *Azken etxea*-rekin batera irakurtzea, baten eta bestearen gogoetek eta narrazioek elikatzen baitute Arrietaren testua.

Bost ataletan bereizi du liburua, eta horien bidez antolatu ditu norberarentzat espazio bat hartzeari buruzko pentsamenduak, bere bizialdiari egindako errepasoa, zahartzaroaren atariak sortzen dituen sentimenduak, amaren heriotzak irekitako eremu arrotza eta etorkizuna irudikatzeo aukerak. Saiakera osatzen duen gogoeta sortaren artean, interes berezia pizten dute sormena lantzat hartzeak idazleari eragiten dizkion poz eta ezinei buruzkoak, baita familian egin beharreko zaintza lanei, eta bereziki amaren azken egunei buruzko kontakizunak ere. Horietan lortzen du

Arrietak pertsonaetik kezka kolektiboekin konektatzea eta bere idazketari dimensio zabalago bat ematea.

Izan ere, eta testua hirugarren pertsonan idatzita egon arren, Arrietaren munduari erabat atxikitako saiakera da, aitorten eta bizipen intimotant ardatzua, zeinak askotan bere horretan geratzeko arriskua duen. Hots, idazleak bere buruari idatzitako testu batean. Hala, kontakizun autobiografikoak zein idazketa intimoak literaturarako eta saiakerarako duten potentziala gutxietsi gabe, idazleak asmoz duen *ni-tik gu*-rako jauzian hutsune nabarmenak sumatzen dira. Annie Ernaux-ek ongi azaltzen duen gisan, «auzia ez baita *ni-a* esatea edo *berraurkitzea*, baizik eta errealtate zabalago batean galtzea, kultura, kondizio, min, eta abar batean». ●

### KRIKA

## Lasterketarako prest?

Imanol Mercero

**H**aur txikiaren liburuari ari garenean, eztabaida izaten dugu nola bereizi 0-2 urtekoei eskaintzeko moduko liburuak. Konturatu gaude formatua (tamaina eta azalaren zein orrialdeen trinkotasuna) ez dela neurgailu fidagarria, kolore biziak edo irudi formatua ere ez diren bezala. Zerbaiti heldu diogu: liburuaren ardatza, bai ilustrazioan, bai testuan, kontakizun bat denean, orduan hiruzpalau urtetik gorakoentzako liburua dela pentsatzen dugu. Saiatuko naiz praktikan jartzen irizpidea.

Liburutxo mardul honen zeregin nagusia eskuen psikomotrizitatea eta koordinazioa praktikatzea da, testuinguru ludiko batean. Ariketa-liburu bat da, fisioterapeutak jartzen dizkigun ariketa taulen oso antzekoa, baina grazia



### 'HATZ TXIKI AURKAKOAK'

**Idazlea:** Claire Zucchelli-Romer.

**Ilustratzailea:** Claire Zucchelli-Romer.

**Itzultzailea:** Aztiri itzulpen zerbitzuak.

**Argitaletxea:** Ttartalo.

gehiagorekin, narratzaileak bi pertsonaien arteko norgehiagoka gertatzen ariko balitz bezala kontatzen dizkigulako funtsean ariketa-eginak diren gertakariak.

Trokelatuta dauzka orrialdeak, trokel-zuloetan gertatzen baita dena, beste marrazki edo heldulekurik gabe.

Aurreikus dezagun, beraz, liburua bere osotasunean gozatuko duen haurrak lauzpabost urte, edo gehiago, izango dituela. ●

### KRIKA

## Irudi kateatuen mundua

Imanol Mercero

**A**lbum ilustratuetan eskaintzen dira literaturak sor ditzakeen ipuin sinpleenak. Elkarrekin kateatuta dauden ilustrazio sortak izaten dira. Normalean komiki mutu baten antzeko itxura dute, irudi batetik besterako jauzia denborazkoa izaten delako, eta ez derrigor lekuzkoa. Ilustrazio batetik besterako jauzian ezaugarri bisual asko errepikatzen dira, ñabardura batzuk salbu. Hain zuzen aldaketa txiki horien bidez egiten du aurrera ipuinak.

Demagun esku artean dugun album honen kasua. Ezkerreko orrialdeak eta eskuinekoak ere du moduko bat osatzen dute, orriz orri errepikatzen dena. Honela: ezkerreko orrialdean ilar ale bat ingurune jakin batean biraka doa, eskuineko orrialdean hura jango lukeen



### 'BIRA BIRA BIRAKA'

**Idazlea:** Cecile Bergame.

**Ilustratzailea:** Magali Attiogbe.

**Itzultzailea:** Miren Agur Meabe.

**Argitaletxea:** Ttartalo.

animalia agertzen da. Sei aldiz errepikatzen da, zazpigarrenengoan zulo batek ilara irentsi, eta jarraian datozen lau orrialdeetan amaiera gertatzen den arte.

Testuak gidatzen du erabat kontakizuna, hura gabe albuma irudi katalogo hutsa litzateke. Horregatik, eta ilustrazioak oso garbiak direlako, album hau bi modutara irakur daiteke: txikienekin *non dago/zer da* modura irakur daiteke, eta lau urtetik aurrerakoekin testua jarraituz, ipuin modura. ●